

“LEGEEN ARABERA EGIN BEHAR DITUGUN BAINO ASKOZ GAUZA GEHIAGO EGIN DITUGU EUSKAL UDALOK. HORI, BERAZ, EZ DA “BIKOIZTEA” ETA “ERAGINKORTASUNIK GABE” JOKATZEA, “ARAZOAK KONPONTZEA” BAIZIK”. Ibone Bengoetxea

EUDELeko elkarteburuak Eusko Legebiltzarrean adierazi duenez, udal-eskumenak eraginkortasunez antolatu behar dira, eta finantziazio-sistema hobetu behar da, euskal administrazioen eraginkortasuna handitu nahi izanez gero.

Bilbon, 2012ko urtarrilaren 23an. Gaur, EUDELeko elkarteburuak, Ibone Bengoetxeak, Eusko Legebiltzarrari eskatu dio udalek Euskadiko sistema instituzionalean daukaten zeresana oso kontuan hartzeko.

Ibone Bengoetxearen esanetan, txostena “abiapuntu ona” bada ere, ez du inolako zehaztasun kontzeptual eta metodologikorik tokian tokiko ikuspegiari dagokionez. “Eskumenen esleipena argia ez denez, oso zaila da ustezko bikoiztasunek edo eraginkortasunik ezak nolako eragina duten neurtzea”, azaldu du.

EUDELeko elkarteburuak berariazko deia egin die euskal legegileei eta autonomia zein foru mailako gainerako eragile instituzionalei, arlo zehatz bat arautzen dutenean udal-eskumenak zein diren mugatzeko gai izan daitezen eta esleipen horren finantziazio egokirako mekanismoak ezarri ditzaten.

“Toki-autonomiaren erantzukizun publikoen arloa ondo mugatu behar da, aurretiaz zehaztu behar da, egonkorra izan behar da eta ez da egoera politikoen menpe egon behar”, nabarmendu du.

Era berean, EUDELeko elkarteburuak proposatu duenez, era guztietako gobernu-mailen arteko elkargunerako organoa sortu beharko litzateke, Euskadiko politika publiko guztien betearazpena adosteko. “Bertan, hain zuzen ere, beharrezko sinergia guztiak proiektatuko lirateke, zerbitzugintza publikoa hobetzeko eta bere

kalitatea bermatzeko”.

Aldi berean, EUDELeko ordezkariak euskal eredu instituzionala balioetsi du, honako haxe esatean: “gure sistema konplexua bada ere, nahikoa ondo dabil”. Bestetik, kudeaketa hobetu beharra dagoela argitu du, “eraginkortasun handiagoa lortu nahi dugulako erakundeen artean zein erakundeetan beraietan ere”.

Alde horretatik, txosten hau argitaratzean egin zuen bezala, Ibone Bengoetxeak berriro esan dio Eusko Legebiltzarrari EUDEL bera erabat prest dagoela informazioa emateko eta egoeraren azterketa enpirikorako ekimenetan laguntzeko. Horrela, bada, behar den moduko diagnostikoa egin eta irtenbideak ezarri ahal izango dira.

‘Berezkoak ez diren eskumenak’ eta finantziakzioa

EUDELeko elkarteburuak bere agerraldian azaldu duenez, udalen “askitasun finantzarioa” sustatu beharra dago. Horretarako, argi eta garbi adierazi du udal-ordezkariak bete-betean parte hartu behar dutela Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan. Bestetik, gainerako administrazioen diru-laguntzen politika ere izan du hizpide, eta baldintzapeko diru-laguntzak kentzeko eskatu du, edo, besterik ezean, urte anitzeko hitzarmenen bitartez egituratzeko.

Ibone Bengoetxearen esanetan, udalei “berezkoak ez diren eskumenak” esleitu badizkiete ere, ez diete erantzukizun horiei aurre egiteko behar besteko finantziazorik eta baliabiderik eman. Hori dela eta, toki-erakundeek euren aurrekontuen bitartez aurre egin behar izan diete kostu horiei.

‘Derrigorrezkoak ez diren zerbitzuei’ dagokienez, EUDELeko elkarteburuak honako hauen egoera aztertu du xehetasunez: adinekoentzako egoitzak, udal-euskaltegiak, musika-eskolak edo enplegu-arloko toki-agentzien sarea. Alde horretatik, elkarteburuak nabarmendu du alkateek zerbitzu horiek eman behar izan dituztela euren biztanleekin duten erantzukizunagatik eta ez “nahierara”.

“Udalok jendearen kexak eta eskariak entzuten ditugu kalean, eta ezin dugu beste



alde batera begiratu, izen-abizenez ezagutzen dugulako elkar”, azpimarratu du.